

## BALIO PROPOSAMENA

Pertsonak eta animaliek osatzen duten “familia” gero eta normalizatuagoa dago gure gizartean, baina zoritxarrez animalia hauentzako oraingoz oso zerbitzu gutxi eskaintzen dira. Horregatik, egoera honen aurrean bezero kantitate handi bat aurreikusitako dezakegu beraiei bideratutako zerbitzu bat ematea erabakitzen badugu.

“Animaetxe”n maskotentzako zerbitzu berezi bat ematen dugu, animaliek merezi dituzten zaintzak emanez. Maskotak gure familietako kide direlako. Zaintza mota ezberdinak eskainiko ditugu animalia bakoitzaren arabera eta animalia konkretu batzuetan adituak diren langileak izango ditugu lanean. Adibidez, katuetan adituak, txakurretan adituak edo txorietan adituak.

Gure bezeroen maskoten behar garrantzitsuetaz arduratuko gara, baina maskota bakoitzaren beharrak ezberdinak izan daitezke, horregatik gure bezeroen maskoten informazioa bildu egingo dugu eta informazio horren arabera beste zerbitzu berezi batzuk eskainiko ditugu (zerbitzu hauek izateak prezioa aldatuko du).

Eskainiko ditugun zerbitzu nagusiak hurrengoak izango dira: animaliak osasuntsu egoteko gertuko albaitariekin kontaktuan egongo gara edozein ezbehar gertatzen bada; animalia bakoitzak bere behar eta tamainaren arabera espazio irekiak, itxiak, parkeak eta beste hainbat eremu izango ditu; animalia guztiei dieta osasuntsu bat emango zaie non animalia guztiek behar dituzten mantenugaiak lortuko dituzte. Zerbitzu bereziak berriz maskota bakoitzaren arabera ezberdinak izango dira, adibidez bat txakur agresiboak domestikatzeko klaseak egingo dira.

Nahiz eta guk ez izan konpetentzia asko, gure bezeroei prezio egoki batekin kalitate oso oneko zerbitzuak eskeinitzeko dizkiegu, gainera lehenago aipatu dugun bezala maskotak zaintzeko zerbitzuak oso urriak dira eta gure gizartean maskotak geroz eta gehiago direnez maskotak zaintzeko beharra geroz eta handiagoa da, hori dela eta pertsona asko guk eskaintzen ditugun zerbitzuetan interesatuak egotea espero dugu eta bezero kopuru handi bat izatea daukagu aurreikusita.